

# Senpereko lekukotasunak argazkien bitartez



Michel **M**endiboure\*

*Urte ilunak ziren haiek, beltzak. Etxe gehienetan ez zen, ez urik, ez argi indarririk, ez biderik. Dirurik ez zen eta familiak handiak ziren. Senpereko Xalbador-Yarzabal bertsolariak 1957an zion: "Aspaldi urte hautan zagon gure herria tristerik, jende pobriek guk badakigu zonbat dugun sofriturik". Eskolan euskaraz mintzatzeagatik eta eskolako lanak gaizki egiteagatik zafratzen gintuzten eta ainitzek gauza guti ikasirik eskola uzten zuten. Jendea miserian eta Elizaren larderiepean bizi zen. Egoera hori zen, gaztea, Algeriara soldado abiatzean.*

*Giltza-Hitzak: Bakealdia. Injustizia. Ahalgea. Erra. Harisgain.*

*Ces années-là furent des années noires. Il n'y avait ni eau, ni électricité, dans la plupart des maisons, et il n'y avait pas non plus de chemins. Il n'y avait pas d'argent et les familles étaient nombreuses. Xalbador Yarzabal, le bertsolari de Senpere, disait en 1957: "Aspaldi urte hautan zagon gure herria tristerik, jende pobriek guk badakigu zonbat dugun sofriturik" (Il y avait des années que notre peuple était plongé dans la tristesse, nous les pauvres savons combien nous avons souffert). A l'école on nous frappait si on parlait le basque ou si on faisait mal nos travaux de classe, et nombreux furent ceux qui quittèrent l'école sans avoir appris grand chose. Les gens vivaient dans la misère, sous l'autorité de l'église. Telle était la situation lorsque le jeune partait soldat en Algérie.*

*Mots Clés: Pacification. Injustice. Honte. Haine. Harisgain.*

*Fueron años oscuros aquellos, negros. En la mayoría de las casas no había agua ni electricidad, y tampoco había caminos. No había dinero y las familias eran numerosas. Xalbador Yarzabal, el bertsolari de Senpere decía en 1957: "Aspaldi urte hautan zagon gure herria tristerik, jende pobriek guk badakigu zonbat dugun sofriturik" (Hacia años que nuestro pueblo estaba hundido en la tristeza, bien sabemos los pobres cuánto hemos sufrido). En la escuela nos pegaban por hablar euskara y por hacer mal los trabajos de clase, y muchos dejaban la escuela sin haber aprendido gran cosa. La gente vivía en la miseria, bajo la autoridad de la Iglesia. Ésa era la situación cuando me fui de soldado a Argelia.*

*Palabras Clave: Pacificación. Injusticia. Vergüenza. Odio. Harisgain.*

---

\* Bidartekoborda. F-64310 Senpere.

Algeriako gerlaz hitz egitea, gaur oraindik, 40-50 urteren buruan ez da errex ainizentzat. Ibili direnak, gisa batera edo bestera markatuak utzi baititu gerla horrek. Bertze batzu bezala Urdazuri ibai aldean – Sara – Senpere – Azkain, jendea mintzaraztea entseiatu gira, *Ttipi Ttapa* aldizkaria lagun. Orokorki erran ditekete, Algeriako gerla kondenatzen dutenak tronpatuak izan direla erraiten dutenak, direla, errexkienik mintzo.

Bortzek beren lekukotasuna eman dute: Behastegi Pierre, Astigarraga Laurent, Harisgain André, Pierre Chipy ta Joset Oxandabaratz.

Lehen argazkia: Préparation militaire

Jendarmek herritar gazteeri armadako entrenamenduak egitzen zizkieten. Hori igande goizetan pasatzen zen. Erakusten zieten:

- urratsean ibiltzen
- armak eskaintzen
- tiro entrenamendua, gehien bat

Erran gabe doa, nahitaez horrek, etxetan, lagunen artean herrian giro bat sortzen zuela. Militar giro bat. “Nik hi baino hobeki egin diat”. Eta holako.



“Préparation militaire” delakoa.

Bigarren ta hirugarren argazkia: *Révision militaire* edo xorte eguna edo kintoakoak.

Arras giro frantsesean iragaiten zen. Bandera frantsesa, lepokoak frantses koloretan, medailak girgileria non nahi! maizenik herriko auzapeza ere han izaten



1959ko xortea. Senpereko alkatearekin Uztaritzeko Herriko Etxe aintzinean.

zen. Astero *Sud-Ouest* kazetak *Révision militaire* edo xorte eguna ekartzen zuen eta horrek baginakien zer erran nahi zuen. Algeriako gerlaz ez baitzen aipamen gabeko egunik. Baina inor ez zien gazte haueri torturaz, *corvée de bois*, bortxaketaz, etxe miatzetaz, herrixka erretzez, hilak bi aldetarik, hitz egin. Gertakizun, haueri buruz ez zuen preparatu, ez sindikatek, ez partidu politikoeak, ez eta ere Elizak.



“Xorte eguna”.

Bertzela pentsatzen dutenak ere badira. Beraientzat beren *devoir*-a egin dute. Hortan kitto. Hortan paso. Eta galdetzen diozutelarik zertako gaur egun horrenbeste medaila, gerlari ohien egunak, erranen dizute “C’est une reconnaissance de la France”. Nola Frantziak ez duen aitortu trunpatu denik, eta nola gaurkotz barkamenik ez den aipu, beraiek ere hortan diraute.



“Souvenirs du soldat mort en Algérie” hila-ko parodia bat egin zen Senperen.



Emile Laxague apez Komandantea. (Foto Paris Match)

Kantuak zion bezala Algeriako gerlaz: “Euskal Herria denak isilik dagozi”. Mintzatu behar zutenak ere bai. Hemen Emile Laxague, seminario haundiko irakaslea Algeriara “rappelé” bezala deitua izan zen 1956an. Gero Baionako bikario general bilakatu zen; bere isiltasunaren saria ote?

Piarres Larzabal, Piarres Lafitte edo Charriton, JAC eta JOC-ko omonierak bezalako batzu kenduta, Eliza ofiziala isilik egon zen. Ez zen torturarik, hilketa hotzik, bortxaketarik salatua izan. Alta jakinaren gainean ziren. Euskal Herriko gazteria ez zuten argitu.

Argazki hauek erakusten dute, bizi osoa, gizarte osoa politikoetarik hasi eta Elizaraino, Algeriako gerlari buruz bihurtua zela. Gizartea gerlaren itzal beldurgarrian bizi zen. Burasoak beti heldu noiz jendarmak telegramarekin etorriko ziren.

Aljeriako Gerlaz  
Peio Chipi  
Joset Otxandabaratz  
Pierrot Behastegui  
Laurent Astigarraga  
André Harisgain-en  
Lekukotasunak

Ipar Afrikako Gerlan hil diren eskualdunak (1952-1962). 101 euskaldun hilik eta belaunaldi bat, 15.000 lagun, bizi guzira markatua, zauritua.



Itsasuko orhoit harria.